



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## USANSOLO HERRIAK GAUR EGUN GALDAKAOKO AUZOA DANAREN SEGREGAZINOAREN ALDE EGITEKO ESKATU DEUTSE BATZAR NAGUSIETAKO TALDEEI

- Bizkaiko 113. udalerrria sortzearen alde egiten dauen talde horretako ordezkari bat Batzar Nagusietako Eskarretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordera joan da
- Herri plataformak alderdi politikoei jakinarazo deusenez, Usansolok Foru Arauaren “baldintza guztiak” “hasieratik amaierara arte” beteten dituala egiaztatzen dauen memoria aurkeztu jako Foru Aldundiari
- Beste agerraldi batean, Trianoko abeltzainek “guztientzako” konponbidea eskatu deusie Aldundiari, eta baita Zugaztieta inguruan segurtasun juridikoagaz bazkatzeko araudia be, bagilean laugarren epaiketea irabazi ostean

(Bilbon, 2021eko garagarrilaren 30an). Usansolo Galdakaoko udalerritik bereiztearen aldeko plataformak Bizkaiko Batzar Nagusietara jo dau gaur, segregazino prozesuaren egungo egoera azaltzeko. Usansolo Herria taldeko ordezkari batek agerraldia egin dau gaur Eskarretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordean, eta Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkari daukien alderdi politikoei Usansoloren eta Galdakaoren arteko banaketak ekarriko leukezan ondorio ekonomiko, juridiko eta praktikoak zehatz-mehatz jasoten dituan txostena ontzat emon daiela eskatu dau.

Bizkaiko udalerrian gai hori ebazteko sortutako Batzorde Mistoak garagarrilaren 14an egin eban azkenengo bilera, eta Usansolo Galdakaotik banantzeak ekarriko leukeenaren ganeko memoria onartu eban, gehiengo osoz. Agiriak Bizkaiko Lurralde Mugaketen ganeko Foru Arauaren 41. artikuluan ezarritako baldintza “guztiak” beteten dirala egiaztatzen dau, Monika Mena Usansolo Herria taldeko bozeroalearen berbetan.

1988an hasitako desanexino saiakeren errepaso egin dau Menak. Hainbat saiakera egin eta 2012an Bizkaiko desanexinoak “debeketan” ebazan foru-arau bat onartu ostean, araudi hori 2015ean aldatzeak Galdakaoko auzo horretako bizilagunen aspaldiko asmoa berreskuratzea ahalbidetu eban; izan be, erabagia “gehiengoak” babestu eban 2014ko azaroaren 23an egindako herri-kontsultan, baiezko “1.964” botogaz.

Aldaketa horreen ondorioz, Galdakaon azkenengo legegintzaldi honetan sortutako batzorde misto batek justifikazino-memoria bat egin dau, foru-araudiak agintzen dauen



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

moduan. Memoria hori “daborduko” emon jako Aldundiari, eta, “laster”, espero dabe Udalak Galdakaon ikusgai jartea, jente aurrean jarteko aldia beteteko.

Usansolo Herria taldearen berbetan, batzorde mistoaren txostenak foru arauaren baldintza “guztiak” beteten ditu “hasieratik amaierara arte”. Desanexinoa “ekonomikoaren aldetik bideragarria” izango litzateke, horren eragina jasoko leukien bizilagunen kopuruaren ganeko informazioa, ondasunak eta zorrak esleitzeko proposamen bat, ikututako lanpostuen zerrenda bat eta Bizkaiko 113. udalerria zer izango litzateken zehazten dauen kartografia bat “koordinaduen zerrenda eta guzti” jasoten dituan dokumentu batek erakusten dauenez, Menak aurreratu dauenez.

Prozedurak oraindino maila batzuk gainditu behar ditu. Foru Aldundiaren oneritxiaren ostean, Galdakaoko osoko bilkurak txostena onartu behar dau, eta, horren ostean, Usansolon beste herri-kontsulta bat egingo litzateke. Prozesua amaitzeko, Foru Gobernu Kontsejuak onartu beharko leuke, batzorde juridikoak erespen bat egin beharko leuke eta, azken pausu moduan, Bizkaiko Batzar Nagusiek onartu beharko leukie. Usansolo Herria taldeko bozeroalearen eretxiz, “denporak errespetau ezkerro, ebazpena legegintzaldi honetan bertan sartu ahal izango da”. Usansolok “gaiztasunak, trabak eta borondate faltea” izan ditu 33 urtetan, baina prozesua amaitzeko “borondate politikoa” dagola azpimarratu dau.

Biztanle kopurua izan daiteke desanexinoa lortzeko oztopo nagusia. Foru araudiak, Bizkaiko Batzar Nagusiek onartutako aldaketa baten ostean, barruti bat independentea izatea ahalbidetzen dau, betiere 2.500 bizilagun baino gehiago baditu, baina ez Gobernu zentralak, harek 5.000 izatea eskatzen dau eta. Eta orain arte Galdakaoren esku egon dan auzoa atalase horren azpitik geratzen da, udalak berak emondako datuak kontuan izanda.

EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak argi eta garbi babestu dabe edegitako prozesua, eta Usansoloko herritarren borondatea errespetauko dabela iragarri dabe, “demokrazia zuzenean sinisten dogulako”, esan dau Bea Ildardia koalizino abertzaleko bozeroaleak. Ganerako taldeak (Talde Berezia, Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak) zuhurrago agertu dira eta txostena ezagutu arte itxoin gura izan dabe; halanda be, desanexinoaren alde agertuko litzatekez, baldin eta legea beteten bada eta herritarren borondatea desanexinoaren aldekoa bada.

## LARRATZEKO ESKUBIDEA TRIANON

Modu berean, José Antonio Quintana Linaza, oraingoan, Javier Ugartegaz eta Koldo Fuentesegaz batera, Eskarretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordera joan da barriro Trianoko abeltzainak ordeztuz, larratzeko eskubideari jagokonez



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Trianoko mendietan edegitako gatazkan izandako azken barrikuntzen barri emoteko, eta, zehatzago esanda, Bilboko Administrazioagazko Auzien hirugarren Epaitegiak oraintsu emondako erabagiaren barri emoteko.

Laugarren aldiz, epaitegiek errazoia emon deutse abeltzainei, Zugaztieta inguruan Foru Aldundiak abereak eroateagaitik, eta Quintanak “zuhurtasuna” eta “guztiontzako konponbidea bilatzeko” eskatu deutso Foru Aldundiari. Dana dala, kexau egin da “tristea eta tamalgarria” dalako justiziak errazoia emon ostean, “ordezkari politiko batzuek” hartu gura be ez dituelako. “Batzuetan diktadura gordin eta gogor baten pean bizi garala dirudi”, esan dau. Halanda be, Javier Ugartek baieztu dau “hartu-emon laburrak” izan dituela zuzendaritza barriagaz, egoerea konpontzeko.

Abeltzainek mendia arautzearen alde egin dabe, eta 2011. urtean inplikautako alde guztiakaz (Aldundia, Abanto-Zierbenako, Ortuellako eta Trapagarango udalak eta abeltzainak) lanerako edegi zan mahaia barriro aktibetako eskatu dabe, “erakunde koordinatzaile neutral” batek Trianoko mendietako larrak eta inguruko ganerako aisia-eta jolas-jarduerak kudeatu daizan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## USANSOLO HERRIA PIDE A LOS GRUPOS JUNTEROS QUE APOYEN LA SEGREGACIÓN DEL ACTUAL BARRIO DE GALDAKAO

- Una representación de esta formación, que aboga por la creación del municipio número 113 de Bizkaia, comparece en la comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de la Cámara foral.
- La plataforma ciudadana comunica a los partidos políticos que se ha elevado ya a la Diputación la memoria que acredita que Usansolo cumple “cada uno de los requisitos” de la Norma Foral, “desde el principio hasta el final”.
- En otra comparecencia, ganaderos de Triano piden a la Diputación una solución “para todos” y una regulación para pastar con seguridad jurídica en el entorno de La Arboleda tras ganar en junio su cuarto juicio.

(Bilbao, a 30 de julio de 2021). La plataforma que aboga por la desanexión de Usansolo del municipio de Galdakao ha acudido hoy a las Juntas Generales de Bizkaia a explicar a los grupos junteros la situación actual del proceso de segregación. Una delegación de Usansolo Herria, que ha comparecido hoy en la comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía, ha pedido que los partidos políticos con representación en la Cámara vizcaína den por bueno la memoria donde se recogen detalladamente los efectos económicos, jurídicos y prácticos que generaría la separación entre Usansolo y Galdakao.

La Comisión Mixta creada en el municipio vizcaíno para dirimir esta cuestión, celebró el 14 de julio su última reunión en la que dio luz verde por mayoría absoluta a la memoria sobre lo que supondría la separación de Usansolo. El documento acredita que se cumplen “cada uno” de los requisitos establecidos por el artículo 41 de la Norma Foral de Demarcaciones Territoriales de Bizkaia, según Monika Mena, quien ha hablado en calidad de portavoz de Usansolo Herria.

Mena ha hecho un repaso de los intentos de desanexión que comenzaron en 1988. Tras varios intentos y la aprobación de una norma foral en 2012 que “prohibía” las desanexiones de Bizkaia, un cambio de esta normativa en el año 2015 propició que fuera posible recuperar el viejo anhelo de los vecinos de este barrio de Galdakao que apoyó de forma “mayoritaria” la separación en una consulta popular celebrada el 23 de noviembre de 2014, con “1.964” síes.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

A raíz de estos cambios, una comisión mixta creada en esta última legislatura en Galdakao ha culminado la elaboración de una memoria justificativa como obliga la normativa foral, que “ha sido entregada ya” a la Diputación y que “en breve”, esperan, sea expuesta en Galdakao por el Ayuntamiento para cumplir con el periodo de exposición pública.

Según Usansolo Herria, el informe de la comisión mixta cumple “cada uno” de los requisitos de la norma foral “desde el principio hasta el final”. La desanexión sería “viable económicamente”, según acredita un documento que ofrece información sobre el número de vecinos afectados, una propuesta de atribución de bienes y deudas, una relación de puestos de trabajo afectados y una cartografía que delimita lo que sería el municipio número 113 de Bizkaia, “incluso con un listado de coordenadas”, ha avanzado Mena.

Al procedimiento le quedan todavía algunos peldaños por salvar. Tras el visto bueno de la Diputación, el pleno de Galdakao tiene que aprobar el informe, tras lo cual se convocaría otra consulta popular en Usansolo. El proceso tendría que culminar con la aprobación del Consejo de Gobierno foral, la elaboración de un dictamen de la comisión jurídica y, como último paso, la aprobación por parte del pleno de las Juntas Generales de Bizkaia. La portavoz de Usansolo Herria cree que “si se respetan los tiempos, tiene cabida la resolución durante esta legislatura”. Usansolo ha sufrido “dificultades, trabas y falta de voluntad” en 33 años, aunque, se ha alegrado de que ahora se palpe que “hay voluntad política” para culminar el proceso.

El número de habitantes puede ser el gran obstáculo para conseguir la desanexión. La normativa foral, tras un cambio aprobado por las Juntas Generales de Bizkaia posibilita que un enclave sea independiente siempre que supere los 2.500 vecinos, pero no el Gobierno central, que exige que sean por lo menos 5.000. Y el hasta ahora barrio galdakaotarra se queda por debajo de ese umbral según datos del propio ayuntamiento.

EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia han apoyado abiertamente el proceso abierto y han anunciado que respetarán la voluntad popular de los habitantes de Usansolo, porque “creemos en la democracia directa”, ha dicho la portavoz de la coalición abertzale Bea Ilardia. El resto de grupos (Grupo Mixto, Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos) se han mostrado más cautos y han querido esperar a conocer el informe, si bien se mostrarían favorables a la desanexión si se éste cumple con la legalidad y si la voluntad popular se muestra mayoritariamente favorable a la desanexión.

## DERECHO DE PASTOS EN TRIANO



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Asimismo, José Antonio Quintana Linaza ha vuelto a acudir, en esta ocasión acompañado de Javier Ugarte y Koldo Fuentes, a la comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía, en representación de ganaderos de Triano, para informar de las últimas novedades en el conflicto abierto en los montes de Triano en relación con el derecho de pastos y, en concreto, en relación al reciente pronunciamiento del Juzgado de lo Contencioso Administrativo número tres de Bilbao.

Tras la cuarta vez en la que los juzgados dan la razón a los ganaderos por la retirada de ganado de la Diputación en el entorno de La Arboleda, Quintana ha pedido “cordura” a la Diputación y “que se busque una solución para todos” en este asunto, si bien se ha quejado de que es “triste y lamentable” que después de que la justicia les haya dado la razón, “algunos” representantes políticos no quieran ni recibirles. “A veces parece que vivimos bajo una dictadura pura y dura”, ha dicho. Sin embargo, Javier Ugarte ha confirmado que han existido “breves contactos” con la nueva dirección foral con vistas a arreglar esta situación.

Los ganaderos han abogado por regular el monte y han solicitado que se reactive la mesa de trabajo que se abrió en el año 2011 con todas las partes implicadas - Diputación, ayuntamientos de Abanto-Zierbena, Ortuella y Trapagaran, y ganaderos- para que un “ente coordinador neutral” gestione los pastos de los montes de Triano y el resto de actividades lúdicas y recreativas de la zona.